

**BEZEROEKIKO HARREMANAK:**

Gure produktua salmentan jartzerakoan, honen salmenta kopuru handia izango duela espero dugu. Produktu baten bizi-zikloari erreparatuz gero, sarrera edo hasiera batean, ohikoa denez, produktua ez da ezaguna izango, salmenta kopurua ez da handia izango eta produktuaren merkaturatzea ez da hain erraza izango. Hau gainditzeko, hainbat supermerkatutan planteatuko ditugu toki finko batzuk gure hortzetako-eskuila ezagutzeko eta saltzeko.

Hasiera batean, produktua merkaturatzeko modu nagusietako bat aipatutakoa izango da. Behin merkaturatu den unetik denbora pasatzean, hazkunde fasean, salmentak igo egingo zaizkigu, arrazoi nagusi bezala, supermerkatuetan ezarritako erosleei eskeinitako erakusketei esker.

Aurretik esan bezala, bezeroak, adierazitako webgunean nahi duen aina informazio izango du eskuragarri. Eskuragarri ez dagoen beste informazioren edo konsultaren bat nahi izanez gero, lasai jarri harremanetan aurretik aipatutako telefono zenbakiaren edo emailaren bidez.



